

Intxaurrenondo



Gaztetxea bizirik

Intxaurrenondoko Gaztetxeak urteak daromatza gazteei bestelako alternatiba eskaini nahian. Hainbat musika eta gazte talderen topagune, ekintza asko egiten dituzte bertan, ostiralero bideo emanaldiak, txalaparta ikastaroa eta musika kontzertuaz, adibidez.

A.Z 943-285266

Aisialdia ia eskusiboki kontsumoari lotuta dagoen garai honetan, ez da gauza erraza bestelako alternatibak aurkitzea. Hain

zuzen, alternatiba bat gauzatu nahian dabil Intxaurrenondoko Gaztetxea. "Gaztetxea" zentzu zabalean ulertzen dute bertako lagunek, "gazteen etxea" izanda, gazteei hainbat esparrutan eskaintza egitea baita helburua. Honela, gazte ugariaren topalekua da, aisialdi propioa garatzeko eta zaletasunei bidea egiteko helburua du Intxaurrenondoko Gaztetxeak.

Gaur egun ekimen asko daude martxan. Esaterako, duela bi hilabetetik hona, ostiral gauetan bideo emanaldiak egiten dira. Ostiralero, gaueko 21.30ak aldera, Gaztetxeko gela bat zine-areto bilakatu eta film bat eskaintzen dute. Bestalde, astelehen arratsaldeetan, txalaparta ikastaroa egiten da 19.00etan. Gazte-

Gaztetxeak aisialdi alternatiba izan nahi du

txekoeak, bestalde, argazkilari-tza eta "breakdance" ikastaroak egiteko asmoa dute geroari begira.

Musika harrobia

Musika taldeentzat ere badago lekua. Urteak dira hainbat taldek gaztetxea entseiu leku dutela. Haien artean ditugu Lau Itzal, Fite eta Nor musika taldeak. Taldeotako batzuk ospetsu samarrak bihurtu dira dagoeneko, eta beste batzuk, berriz, lehen pausoak ematen ari dira.

Gaztetxea, bestalde, gazte talde eta mugimendu ugariaren bilgune da. Besteak beste, bertan aritzen dira Zurrumbilo

komunikazio taldea, Donostiako "ETTak Itxi batzarra", ETEN taldea...

Horrez gain, noiz-behinka kontzertuak eta jaialdiak antolatzen dira: duela gutxi egindako rock kontzertuak, hip-hop kontzertua, afari nahiz bazkari herrikoiak...

Badago, beraz, non aukeratu eta zer egin. Bertako kide batek ondo laburbildu digu Gaztetxearen ispiritua: "Aspaldikoa da benetako gazte esparru zabal bat antolatze-ko, parte hartze-ko eta gure proiektu propioak aurrera eramateko nahia. Horretan ari gara hemen". Horrexegatik, gazteek beharrezkoa duten gisa honetako guneak indartzeko, Intxaurrenondoko Gaztetxeak auzoko gazte guztiak antolatzen diren ekimenetan parte hartzea animatzen ditu, alternatiba erreal baten bidea urratzeko.

Haur festa larunbatean

Plazara Goaz Intxaurrenondoko Euskara Taldeak haur festa antolatu du, larunbatean, hilak 12, 16.30etatik 18.30etara Ipar Intxaurrenondoko Bernart Etxepare Plazan (Putzuko Plaza) eta bertako Ipar Haizea auzo elkartearen aretoan. Jokoak, tailerrak eta jolasak izango dira, besteak beste. Hurrek euskaraz arratsalde pasa polita egiteko aukera izango dute, beraz.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker
gracias a ti

gizarte ekintza
obra social